

Aurreko batzarraren bukaeran Etxaide jaun buruzagiak eskatu zidan bezela zirriborro batzuek egin ditut Euskaltzaindiaren diruaz eta bere etorkizunaz.

Urtearen bukaeran, kontuetan ikusiko zenduenez, Euskaltzaindiak eskuartean 42.565,23 pta. zeuzkan. Aietatik amar milla peseta euskerazko metodo bat saritzeko dira eta bi milla ta eun da irurogetaamairu aurtengo Bizkaiko aurren sariak osatzeko.

Euskaltzaindiak badauzka urtero etorbide seguruak. Auek dira:

Nafarroako Diputazioa	5.000
Gipuzkoako Diputazioa	5.000
Caja de Ahorros Provincia Guip.	5.000
Ayuntamiento San Sebastián.....	6.000
Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.....	2.000
Junta de Cultura de Vizcaya	10.000
Guzira	33.000

Urteko gasturik beñenak, gogoan artzen baditugu igazko gora berak, irurogeta amar milla peseta inguru dira. Bertan ezta sartzen iñolako gastu bear bearrezkoa eztanik. Beraz, oraindik urtea bukatzeko beste amar milla peseta bat bear genituzke. Kalkulatu diteke urtero bear ditugula etorbide seguruak baiño ogetaamazazpi milla peseta geiago.

Beste alde batetik Arabako Diputazioari ere egin bear zaio Azkue-ren iztegirako eskabidea eta bear-bada zerbait etorriko da andik ere.

Eta jakiña, Bizkaiko Diputazioaren emaitza falta zaigu Azkue-ren iztegiaren izenean. Eskeiñia zeukaten. Baiña igaz aurtengo presupuestotik kendu egin zuten pesetaren estabilizazioa lortzeko artu diran erabakiakatik. Aurten lortuko ote da presupuestoan sartzea? Lortu ezkerro berrogetaamar milla pesetatik gora izango litzake, noski, eta datorren urte osoa bukatu arte jarriko giñake lasai, gasturik bearrezkoenak ondo betetzeko moduan, iztegi lanak ere gogoan arturik. Beraz, or ekin bearra dago.

Errege egun inguruan Bilbon egiten dan jaialditik ere beti etorri oi da zerbait, eta ori Euskera aldizkariaren utsunea ornitutzeko laga genezako.

Novela-sariaren dirua "Caja de Ahorros Vizcaina"-k eskeiñia du eta saria ematerakoan eskuratuko degu.

Aurten Bizkaiko aurren artean izango dan sariketarako amar milla peseta jarriak daude, baiña oriek ere eztitugu artu oraindik eta ematerakoan eskuratuko ditugu eskeiñia dagoen bezela.

Bertsolarien sariak eta gastuak onela erabaki ditezke:

Nafarroan. Euskaltzaindiak eta euskeraren Aldeko Saillak alkartuta egingo dute. Baiña gastu guziak Euskeraren Aldeko Saillak pagatuko ditu.

Bizkaian. Aurten ez bakarrik "Caja de Ahorros Vizcaina"-k, baita Ayuntamentuak ere emango dituzte sariak eta gastuak pagatu, ikusi baitute bertsolariak jaietan jenteak asko estimatzen dituela. Orrela esan didate alkate batzuek beintzat. "Caja de Ahorros Vizcaina"-ri eskabidea Maiatzaren asieran egin bear zaio San Antonioetan Urkiolan lendabiziko txapelketa egiteko. Uste det orrela gastu guziak bete ditezkeala.

Gipuzkoan. Igaz lendabiziko saria "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa"-k eman zuen, eta eskabidea egin zanean, erabaki baiño leen, ango buruzagiak Etxaide jaunari galde egin zion nolako asmoak zeuden aurrerantzerako eta baita "Caja de Ahorros Vizcaina"-k nola parte artu zuen, eta esan zitzaion urtero egin nai zala eta guziaren berri eman zitzaion. Beraz, elitzake gauza zailla izango "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" eta sariketak egiten diran Ayuntamentuen artean sariak eta gastuak pagatzea.

Orretara geldituko litzake Euskalerra osoko azken txapelketa nagusiko sariak ornitu bearra. Eta ango sariak "Caja de Ahorros"-ei, bai Bizkaiko ta bai Gipuzkoakoari, eskabidea egiterakoan, bertan sartu ditezke, egingo dan erriko Ayuntamentua ere kontuan izanik.

Ortaz gaiñera argitaratzen dan bertso liburua Euskalerra osoan saldu diteke aurtan.

Eta Gipuzkoako ta Bizkaiko azken txapelketa nagusiak zezen plazetan egingo balira, orretarako laguntzailleengandik laguntasuna artuta, Euskaltzaindiak etorbide polit bat izango luke.

Euskaltzaindiak egingo duen deitok ere etorri diteke dirua. Ayuntamentuak ere nolabait zirikatu bear lirake urtero suskrizio on bat egin dezaten. Ortarako bana banaka alkateak bisitatu bear lirake. Arrue jaunak, beste norbaitekin, uste det Gipuzkoan zerbait egin dezakela. Bizkaian, bertsolariak dirala-ta, oso modu onean daude erri aundi batzuetako alkateak eta bear-bada an ere zerbait egingo litzake. Eta jakaña, lantegi, empresa, eta edozelako jaun andreak, asko lagundu dezakete.

Eta au da, begirada batean, gure egoera eta etorkizunerako izan genezakean ametsa.